

ERROMATAR EMAKUMEAK LAN MUNDUAN

EMAKUMEAK, OSASUNA ETA ZAINNTZA

Ikaslea: Maddi Izaguirre Ayestaran

Historiako gradua 2021-2022 ikasturtea

Gradu Amaierako Lana

Zuzendaria: Elena Torregeray Pagola

Letren Fakultatea-Ikasketa Klasikoen saila

LABURPENA

Erromatar gizartea, bere hastapenez geroztik, modu hierarkizatu batean antolatuta egon zen eta eredu horretan emakumeak juridikoki bigarren mailan geratu ziren. Bereztasun horren oinarrian, neurri batean, gizarteak sortu zuen erromatar matrona idealaren eredua zegoen zeinak emakumea etxearen eta familiaren zaintzara mugatzen baitzuen, bizitza publikoko parte hartze orotik aparte utziz. Egoera horrek erromatar garai osoan indarrean jarraitu zuen arren, denborak aurrera egin ahala geroz eta gehiago urruntzen joan zen errealitatetik, Errepublika amaieratik gizartean gertatzen ari ziren aldaketek emakumeen bizimoduari eragin baitzioten. Hala ere, gaur egunera arte mantendu den zerbait badago hori emakumeek osasun eta zaintza arloetan izan duten garrantzia da, mundu erromatarrean ere emagin, mediku, inude eta farmakopea modura emakumeek zeresan handia izan baitzuten. Medikuntza-ezagutzak, ordea, ez ziren erromatarrek osasun kontuetarako baliatzen zituzten bitarteko bakarra, erlijioak berebiziko esangura zuen gizarte honetan jainkotasun ezberdinek jokatzeko zuten funtzio garrantzitsua osasunean ere islatzen baitzen. Era berean, medikuntzak lotura estua izan zuen magiaren mundu ilunarekin ere, horrela ekuazioa osatzeko elementu guztiak mahaigainean izanik.

Hitz gakoak: *emakumea, lanbidea, Erroma, medikuntza, zaintza, magia.*

ABSTRACT

Since its beginnings, Roman society had been organized in a hierarchical manner, and in this model women remained legally in the second rank. On the basis of this peculiarity, in part, it was the example of the ideal Roman “matron” created by society, which confined the woman to the care of the house and the family, and set her apart from all public life's participation. Although this pattern continued throughout the Roman period, it progressed further and further away from reality, as changes in society since the end of the Republic affected positively in women's lives. Anyway, if there's anything that's been supported up to the present day, that's the importance of women in health care, because since then women have had a remarkable significance as midwives, doctors, nurses, and pharmacists. Nevertheless, the knowledge of medicine was not the only means by which the Romans used it for health, in this society where religion was of great importance, different divinities played an important role in health as well. But medicine also had a close connection with the dark world of magic, so that all the components for completing the equation are on the table.

Key words: *women, profession, Rome, medicine, care, magic.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. GAIAREN EGOERA HISTORIOGRAFIKOA	3
3. EMAKUMEEN EGOERA GOI INPERIOKO GIZARTEAN: GENEROA ETA EKONOMIA	5
4. EMAKUMEAK OSASUNEAN ETA ZAINTZAN	8
4.1 Medikuak (<i>medicae/ iatromae</i>) eta emaginak (<i>obstetrices</i>)	8
4.1.1 Kontzeptuak definitzen	8
4.1.2 Iturriak	9
4.1.3 Hezkuntza	14
4.1.4 Baloreak	16
4.1.5 Jardueretarako espazioak	17
4.1.6 Estatua	18
4.2 Inudeak (<i>nutrices</i>)	19
4.3 Emakumeak eta ezagutza farmakologikoa	21
5. SENDATZEKO APARTEKO PRAKTIKAK: MAGIA	23
6. ONDORIOAK	25
7. BIBLIOGRAFIA	27
7.1 Iturri klasikoak	27
7.2 Bibliografia modernoa	28

1. SARRERA

Sarritan, historiaren ikuspuntutik gizarte baten errelatoa egiten denean garai bakoitzeko historia militar eta politikoan jarri ohi da arreta, eta joera hori denboran atzera egiten dugun heinean are gehiago nabarmentzen dela dirudi. Askotan goraiatu izan dira greziar eta erromatar garaipen militarrek eta zinemari erreparatzen badiogu oso erraz jabetzen gara horretaz, ez baitira gutxi greziar zein erromatar gudak eta balentria militarrek errelatatzen dizkiguten produkzioak. Gizartearen zati handi bat, ordea, ekintza horietatik at zegoenez gero, historiaren ahanzturan geratu da, emakumeak kasu.

Bertatik sortu zen niregan lan honekiko interesa. Historia guztian zehar emakumeek lan munduan egin duten borrokari errekonozimendu modura, Antzinako Erroma eta bereziki Goi Inperioa (K.o I- II. mendeak) ardatz hartuta, emakumeek burutu zituzten lanbide ezberdinak izango ditut aztergai. Zehazki esateko, lanaren jomuga osasun eta zaintza arloan emakumeek izan zuten egiteko garrantzitsua aztertzea izango da, gaur egun ere emakumeak nagusitzen diren eremua izaten jarraiki.

Lanaren lehen atalean emakume erromatarrek Goi Inperioko garaian lan munduan izan zuten funtzioa izango dut hizpide, gizarte maila ezberdinetako emakumeen ogibide nagusienei begirada orokor bat eskainiz. Baina hauen artean banaketa bat egin beharrean gaude, emakume guztiek ez baitzituzten aukera berak izan. Gizarte maila altueneko emakumeak ekonomia arloan pribilegio gehiagoz goza zezaketen bezala, historiografiak ere emakume hauen jarduna maila apalagokoena baino gehiago jorratu du. Noski, horren arrazoietako bat iturrietan ere gehien agertzen direnak izatean datza. Aitzitik, maila ekonomiko baxuagokoak gizartearen beraren ikuspegitik garrantzia hutsalekoak izanik, iturrietan ere proportzioan gutxiago agertzen dira eta beraz, hauetaz dugun informazioa mugatuagoa da.

Behin egoerari errepasso azkar bat emanda, zuzenean sartuko naiz lan honen ardatz nagusia izango den atalarekin, emakumeak osasunean eta zaintzan izandako parte hartzea aztertuz, alegia. Atal hau hirutan banatuta egongo da: lehenik, emakume *obstetrix* eta *medica* horien jarduna aztertuko dut eta egia esan bi ogibide hauen inguruan informazio askoz ere sakonagoa eta zehatzagoa aurkitzen dela jabetuko gara, neurri batean Soranoren *Ginekologia* lanari zor zaiona, eta iturri modernoek ere gehien ikertu dituzten ogibideak dira. Jarraian, inudeek erromatar gizartearentzat zuten funtzio garrantzitsuari eskainiko diot arreta, baina kasu honetan, aurrekoekin gertatzen ez zen bezala, Mendebaldeko inperioaren eremurako informazio nahiko mugatua dago eta ondorioz, Egipton oparoak diren papiroetatik jasotako

informaziotik abiatuta egindako ondorioztapenetara mugatu beharko gara. Azkenik, emakumeek farmakopearen inguruan zuten ezagutza boteretsuari erreparatuko diot eta neurri batean bederen historiaren baldintzatzaile ere izan zitezkeela ikusiko dugu.

Amaitzeko, medikuntza-praktikekin nolabaiteko harremana duen eta erromatarren eguneroko bizitzan berebiziko garrantzia izan zuen praktika bat jorratuko dut: magia. Gai honek aparteko lan bat egiteko bezainbat eduki duen heinean, asmoa nire gaiarekin duen lotura ulertzeko nahikoa diren zertzelada solte batzuk soilik eskaintzea da. Aipatzekoa da, magia munduak pizten duen interesa medio, azken urteetan dezente landua izaten ari den gaia dela eta beraz, arlo honetan egindako ikerketak nahiko berriak dira.

2. GAIAREN EGOERA HISTORIOGRAFIKOA

Antzinate erromatarrean, emakumearen historia aztergai berria da. 1970eko hamarkadako feminismoaren uhinetatik, emakumeen eta hauek gizonekin zuten harremanen ikerketak erabateko interes ezetik lanak han-hemenka agertzera igaro zen. Sarah Pomeroy da gai honetan aitzindaria, 1975an argitaratutako *Goddesses, Whores, Wives and Slaves: Women in Classical Antiquity* Antzinateko emakumeei buruzko bere lehen lan orokorrak bidea ireki baitzien emakumeen egoerari buruzko ikerketa berriei. Horrekin batera Eva Cantarellaren *L'ambiguo malanno. La donna nell'antichità greca e romana* obra ere (1981ean argitaratua) erromatar emakumeei eskainitako lehen ikerketen artean koka dezakegu. Egia esan, hasierako lanak oro har, genero-ikerketekin lotuta egon ziren, gizon eta emakumeen arteko harremanak, bi sexuen arteko bereizketa eta identitate maskulino eta femeninoak eraikitze moduak aztertzen dituen zientziarekin hain zuzen. Hortaz, Erromako emakumearen egoera beti gizonenarekin alderatuz aztertu izan da, eta horrek hauen gutxiagotasuna azpimarratzea besterik ez zuen eragin. Gauzak horrela, Susan Dixon izan zen emakume erromatarren inguruan eraikitako ideiak eraitsi eta iturrirei irakurketa kritikoago bat egitea proposatu zuena 2001ean: *Reading Roman Women. Sources, Genres and Real Life* (Mouline 2019, 11-12).

Espanian, emakumearen ikerlanei buruzko bultzada, oro har, eta antzinako munduari loturikoa, bereziki, Madrilgo *Universidad Autónoma*ko *Jornadas Interdisciplinarias de Investigación de Estudios de la Mujer* saioen eskutik etorri zen. 1985ean, Elisa Garrido González irakasleak gidatuta, garai klasikoan emakumeekin lotutako lehen bilera zientifikoa antolatu zen. Ekitaldi horretatik eratorri zen ondorengo argitalpena funtsezko zutabea da emakume klasikoaren ikerketan murgiltzeko. Horrez gain, XX. mendeko 90eko hamarkadan, zehazki 1990ean, G. Duby eta M. Perroten *Histoire des femmes en Occident* bildumaren

gaztelaniarako itzulpena, zeinaren lehen liburukia Antzinateari eskainia izan zen, erabakigarria izan zen Espainiako Antzinako Historiaren arloko emakumearen adituentzat (Conesa 2016, 214). Berriki argitaratutako Irene Mañasen *Las mujeres y las relaciones de género en la Antigua Roma* lanak ere ikuspegi hori zabaltzen lagundu du eta egia esan lan honetarako ere iturri garrantzitsuetako bat izan da.

Hamarkada erabakigarri horietan, pixkanaka emakume erromatarrari buruzko ikuspegia finkatu zen. Lan orokorretatik obra zehatzagoetara joz, hauen inguruko ikerketak hiru arlotan oinarritu direla esan daiteke. Lehenik, emakumearen egoeraren bilakaera historiko eta kronologikoa egin nahi izan da, batez ere aldaketa gehien jasan dituzten etapetan arreta jarritz, Errepublikaren azken urteetan, alegia. Bigarrenik, adituak emakumearen okupazioaz arduratu dira, batez ere, Erromako matronen eginkizunez, hauek zeregin garrantzitsua izan baitzuten seme-alaben heziketan eta *domusaren* zaintzan. Zentzu honetan, historiografia garaikideak gehien errepikatzen dituen gaiak batetik, gizartean paper nabarmena izan zuten matrona erromatar monarkiko eta errepublikarrak, eta nola ez, enperatrizak (azken hauengan arreta berezia ezarri zen emakume ideal eta prototipoaren isla gisa jarduten baitzuten), eta bestetik, emakumeen bertuteak eta etxeko rola izan dira, etorkizuneko erromatar hiritarren emazte eta ama gisa. Arlo honetan aipamen berezia merezi dezake Hemelrijkek 2004an publikatutako *Matrona Docta* lanak. Eta hirugarrenik, Erromako bereizkeria patriarkal eta sozialaz. Hiru alderdi horiei beste ikerketa-eremu batzuk gehitu dakizkieke: bizitza publikoan parte hartzea, prostituzioa edota sexualitatea esaterako (Conesa 2016, 216-217).

Gerora, beste alderdi batzuk ere suertatu ziren interesgarriak, horien artean emakumeek erlijioan izandako parte hartzea izan da azken hamarkadetan hizpide. Matronen bizitza erlijiosoaz aztertzea lagungarria da azken hauek garaiko gizarte erromatarrean izandako adierazpen anitzak ulertzeko. 1963an, *Matronalia* jaiei buruzko ikerketan, Jean Gagék emakumeentzako gurtza ezberdinen inguruan burututako analisiari esker erromatar matronei emandako paper berri bat ikusi zuen, eta horren fruitu izan zen *Matronalia. Essai sur les dévotions et les organisations cultuelles des femmes dans l'ancienne Rome* lanaren argitalpena (Mouline 2019, 13). Erlijioaren alorrean, 2013an argitaratutako Katariina Mustakallioren *Sive deus sive dea* lana ere ezin utzi dezakegu aipatu gabe. Horrekin batera, emakumeen apaizgoak eta batez ere Vestalekin lotutako erlijio testuinguruak ere erakarri du adituen arreta.

Ikus dezakegun moduan, beraz, emakumea bereziki matrona ikuspuntutik tratatua izan da eta gainontzeko aspektuak ez dira horrenbeste landuak izan. Zer esanik ez,

emakumeen jarduera ekonomikoez. Esparru honetako ikerketetarako bidea emakumeen jarduera evergetikotik zabaldu zen. Izan ere, ekintza horiek suposatzen zuten diru kopuru altuen jatorria ekonomiarekin lotuta egon behar zen halaberrez. Hortaz, gai berri horretan murgiltzen hasi ziren ikerlariak eta erromatar emakumeen lanbide ezberdinak argitara ateratzen hasi ziren. Lan honen ardatza diren osasuna eta zaintzari dagokienez, izatez praktika hauetan emakumeek izan zuten rola nahiko gutxi jorratutako gaia izan da eta bertan egindako aurrerapena azken urteetan genero ikuspegia zabaldu eta ikerketa gehiago abiatu izanari zor zaio. Hala ere, nabarmentzekoak ditugu batetik, Maria Ángeles Alonsoren ikerketa lanak Espainia mailan, bai eta nazioartean Athéna Dimopoulou, Jennifer Irving, Francois Retief eta Louise Cilliers bezalako izenak ere, guztiak nire lanerako funtsezkoak izan direnak.

3. EMAKUMEEN EGOERA GOI INPERIOKO GIZARTEAN: GENEROA ETA EKONOMIA

Errepublikako azken urteetatik aurrera eta bereziki Printzipatuaren garaian eta Inperioko lehen mendean zehar, erromatar emakumea nolabaiteko “emantzipazio” prozesu batean sartu zela esan ohi da zenbait pribilegio eskuratu zituela eta. Izan ere, tradizionalki, erromatar emakumeak eskubide orotatik kanpo egon ziren (eta egoten jarraituko dute), ogibideetan jarduteko aukerarik gabe, eta gerran nahiz politikan parte hartzerik gabe. Baina badirudi K.o I. mendetik aurrera pixkanaka gauzak aldatzen joan zirela eta autore desberdinen testuek formakuntza kulturalerako sarbidea, bizitza sozialean parte hartze handiagoa, gizonarekiko askatasun handiagoa, merkataritzan aritzeko aukera, hiriko politikan eragiteko parada... izan zuten emakume geroz eta gehiagoren berri ematen digute. Emakume erromatarrek maila sozialean izandako aldaketa eta aurrerapen hauek bereziki K.o I. eta II. mendeetan zehar jazo ziren eta nahiko nabarmen geratu ziren arlo domestikotik atera eta publikoki protagonismo gehiago eduki baitzuten. Hala eta guztiz ere, Manuel Mañasek adierazten duen moduan, ezin dugu egoera hau guztiz orokortu, hitz egiten gabiltzan emakume hauek, pribilegio berriak erdietsi zituztenak eta gehiago lortzeko borrokatzen zutenak, oro har aristokraziako kideak baitziren. Klase apalagoko emakumei dagokienez, ordea, ezer gutxi dakigu. Beraz, emakumeen “emantzipazioaz” hitz egiten dugunean gutxi batzuei soilik erreparatzen diegula aintzat hartu behar dugu (Mañas 1996, 191-194).

Guri dagokigunean ere, ekonomia alorrean, Inperio garaiko lehen mendeko emakumeak nolabaiteko askatasuna lortu zuela esan daiteke: bere ondasunak kudeatzeko aukera izango du, oinordetzan aberastasunak jaso, bai eta ondorengo orrietan ikusiko dugun

bezala lan munduan integratzeko abagunea ere, eta independentzia ekonomiko hori inongo zalantzarik gabe emakumeen “emantzipazioaren” biderako funtsezkoa izan zen. Horrek, pixkanaka, emakume aberats geroz eta gehiago agertu izana azalduko luke, eta ez soilik gizarte maila altukoaren artean, baita klase apalagokoen artean ere. Horren adibide da, Emilia Musa Zesarren liberta izandakoa, zeinak aberastasun handiak eskuratu baitzituen¹. Beraz, argi dago “emantzipazio” horrek zenbaiti beren estatus soziala igotzeko abagunea eman ziela (Mañas 1996, 198-200).

Xehetasunetan gehiegi sartu gabe eta lan egin zuten emakume guzti horiei aitortza bat egitearren, euren jardunari begirada azkar bat eskaini nahiko nioke. Iturri historikoak oso mugatuak izan arren, badakigu emakume horiek burutu zituzten lanak eta ofizioak askotarikoak izan zirela eta bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren eta gizarte-estatusaren arabera desberdintasun nabarmenak egon zirela. Goi mailako emakume asko negozio- eta enpresa-munduan murgildu ziren: bankan jardun zuten maileguak emanez gaurdaino iritsi zaizkigun zenbait kontratuk erakusten digutenez; lurren eta ondasun higiezinaren jabe egin ziren eta horietan egiten zituzten inbertsio eta negozioekin irabazi handiak eskuratu zituzten; itsas-merkataritzan aritu ziren ontzien jabe edo inbertsore kapitalista modura; edota baita purpura edo adreiluen produkziara eta merkataritzara bideratutako negozioetan ere (Fernández 2011, 383-390).

Baina emakume hauek salbuespen bat besterik ez ziren. Emakume gehienek lanbide jakin batzuetan lan egin zuten edo negozio askoz xumeagoak egin zituzten lokal txikietan, Erromako edozein hiritako kaleetan postu soilak izaten ziren tailerretan. Emakume hauek *vendetrices* moduan izenda genitzake. Jarduera hauetan gaitasun ekonomiko gutxiko emakumeak aritzen ziren. Edozein gizarte-estatuseko emakumeak izan ohi ziren, baina libertoak nagusitzen ziren. Zenbaitek burdingintza, berunaren lanketa edota armagintza bezalako sektoreetan jardun zuten baina hauek ez ziren ohikoenak, gehienak luxuzko objektuen, lurrinen, elikagaien edo ehungintzako hainbat arloko lanbideetan eta espekulazioan aritu baitziren (Fernández 2011, 391-392).

Emakume merkatariairen eta langilearen eta zerbitzariaren arteko tartean hainbat jarduera kokatzen dira, non emakume langile gehienak kokatuko liritekeen. Haien lana apalagoa zen eta beren egoera sozial ekonomikoa prekarioagoa eta anonimotasunean murgildua. Zati handi bat etxeko eremura, zerbitzuetara eta, neurri handi batean, ehungintzako manufakturara mugatzen zen. Normalean, saltzaile espezializatuen bidez

¹ Tac. *Ann.* 2.48.

erosten zituzten ekoizten ziren lekuetako oihalak eta ehunak. Baina emakumeen ehungintza lana ez zen etxeko esparrura soilik mugatu, eta batzuek beren negozioa sortzea lortu zuten. Zerbitzuetan ere emakume asko ikusten ditugu, ile-apaintzaileak, bizarginak, depilatzaileak, igarleak, emaginak, sendalariak, aktoreak, mimoak... Azkenik, zerbitzuei dagokienez, baina kasu honetan ostalaritza arloan, iturri literarioek erakusten dutenez, ostatu-zerbitzuak, janariak eta edariak ematen zituzten establezimenduak eta burdelak zaintzen eta zuzentzen zituzten gehienak emakumeak izaten ziren. Baina badirudi emakume hauek ez zeudela oso ongi ikusita gizartearen aurrean, emagalduta modura kontsideratuak baitziren, beraz, ez da harrizkoa askok euren identitatea anonimotasunean gorde izana eta egun jardura horretan aritutako emakumeen izenik apenas ezagutzea (Fernández 2011, 394-398).

Interesgarria da, halaber, “emantzipazio” ekonomiko honen eta ematen ari ziren aldaketan aurrean garaiko gizarteko gizonezkoek izan zuten jarrera aztertzea. Lan egiteari esker zenbait emakumek ondare handia biltzea lortu zuten, eta jabetza hori modu autonomoan kudeatu ahal izatea oso gertakari esanguratsua izan zen aberastasuna eta boterea elkartuta zeuden gizarte batean. Emakume horiek noski horretaz jabetzen ziren, beren aberastasunez baliatu baitziren bizitza publikoan parte hartu ahal izateko euren eragin sozialaren edota ekintza evergetikoen bitartez. Hala ere, ordura arte gizonezkoek soilik parte hartu zuten esparruetan sartzera ausartu zirenek, beren nagusitasuna mehatxatua ikusi zuten gizonen gaitzespenari aurre egin behar izan zioten.

Emakumeenganako mesfidantzak gora egin zuen hauen independentzia handitu ahala. Gizonezko askok matrona erromatar idealaren eredu arkaikoari lotuta jarraitzen zuten, baina eredu horrek jada ez zuen inolako loturarik Inperioaren garaiko errealitatearekin; izan ere, emakume erromatarrek jada ez zuten zerikusirik aurreko garaietan familiaren eta etxearen zaintzaz soilik arduratu behar zuten horiekin, eta horrek kritikak eta gutxiespena eragin zituen gizonen aldetik. Ez da kasualitatea, beraz, garai honetan autore klasikoengan emakumeen irudi gaiztoa ugaritu izana, Zizeron, Juvenal, Seneka edota Martzial bezalako autoreek aberastutako emakume horiei adultero izatea eta dirua xahutzea ez ezik gaitz guztien azken kausa izatea ere leporatzen baitzien. Guzti honen oinarrian zalantzarik gabe garaiko Erromako pentsamoldea legoke. Izan ere, kontuan izan behar dugu Erromako misoginia etengabea izan zela hasieratik, baita sektore kontserbadoreenak ondare handiko emakumeekiko zuten errezeloa ere. Tito Liviok Katon kontsulari esleitzen dion diskurtso

batean esandakoak oso ongi laburbilduko luke ideiarene muina: “Desde el mismo momento en que comiencen a ser iguales, serán superiores”² (Acedo 2020, 22-26).

4. EMAKUMEAK OSASUNEAN ETA ZAINZAN

4.1 Medikuak (*medicae/ iatromae*) eta emaginak (*obstetrices*)

4.1.1 Kontzeptuak definitzen

Luze oroimen kolektiboan Antzinatean medikuntzarena gizonaek soilik gordetako jarduera-eremua izan zela berresten zuen joera historiografikoa oso hedatua egon da. Aitzitik, izaera literario zein epigrafikoa duten testigantza ugari adierazten digutenez Erroman bazeuden medikuntzan jarduten zuten emakumeak ere. Oro har, medikuntzako arlo desberdinetan aritzen ziren arren, bereziki ginekologian eta obstetrizian aurkitzen ziren emakumez hitz egiten digute iturriek, eta badirudi esparru horietan egin zutela lan hain zuzen ere gehienek. Edonola ere, medikuntza arloko emakumeen artean hiru kategoria bereizten ditu Barragán Nietok (Barragán 2012, 84):

- Batetik, *obstetrix* direlakoez hitz egiten du. Hitzak bere zentzu zuzenean “aurrean kokatzen dena” esan nahi du erditze momentuan emaginek hartzen duten posizioari erreferentzia eginez. Hauek, ordea, erditze uneko laguntza emateaz gain bazituzten beste funtzio batzuk ere: abortuak eragiteko nahiz emakumeen ugalkortasuna lortzeko drogak ematen zituzten, erosiberriak ziren esklabo gazteak birjinak zirela baieztatzeko betebeharra zuten, eta lege-gatazka batzuetan (hil osteko oinordekoen inguruko edota dibortzio momentuan haurdun egotea ukatzen zuten emakumeen kasuetan) euren testigantza funtsezkoa izaten zen.
- Bestetik, *medica* emakumeak bereizten dira. Hauen funtzioa askotan oso zaila da aurrekoenetik bereiztea baina normalean onartzen dena zera da, emakume hauek *obstetrix* batek baino maila altuagoko hezkuntza teorikoa jasotzen zutela. Horrez gain, hauen jarduna ez zen ginekologia eta obstetrizia sailetara mugatzen, beste sektore patologiko batzuek ere arduratzen baitziren.
- Azkenik, *iatromaea* emakumez ere hitz egiten du Barragánek. Hala ere, hauen funtzioa ez dagoela batere argi esaten du nahiz eta ziurrenik aurreko bi postuen arteko kategoria bat edo are maila altuago bat izango zutela dirudien.

² Liv. 34.3: [...] *extemplo simul pares esse coeperint, superiores erunt.*

Barragánek ez ezik, M^a Ángeles Alonsok ere banaketa bera egiten du geroago aztertuko dugun bere lanean, *medica*, *obstetrix* eta *iatromaea*, baina berak ere azken horien izaera ilunaz hitz egiten du, egun oraindik ere ez baitago batere argi zer funtzio betetzen zituzten (Alonso 2011, 267-268). Hori dela eta, eta kontsultatutako iturriek orokorrean *iatromaea* hauen inguruan ez dutela inongo informaziorik eskaitzen ikusita, lan honetan nire arreta beste bi kategoriengan jarriko dut.

Aurrera egin aurretik, gauzak zehazte aldera eta nahasteak ekiditeko, hasieratik argi utzi nahiko nuke banaketa teoriko hau egitea ongi badator ere, sailkapen honek greziar medikuntza zientifikoa mundu erromatarrean sartu zenetik aurrerako garaietarako soilik balio duela, hots, gutxi gorabehera K.o I. mendetik aurrera. Aurreko garaietan, medikuntzan jarduten zuten bakarrak emaginak ziren (aipatu ditugun *obstetrix* horiekin ezin konfunditu ditzakegunak), frantsesez *bonnes femmes* bezala itzultzen direnak. Emakume hauek ahozko transmisioaren bidez jasotako hezkuntza baino ez zuten, eta euren zerbitzuak bereziki haurdunaldiari aurre egin behar zioten emakumeei edota bestelako edozein arazo sexual (antzutasuna, sexu-organoetako gaixotasunak...) izan zitzaketen horiei bideratuta zeuden (Barragán 2012, 83-84).

4.1.2 Iturriak

Tamalez, egun oraindik ere lehen mailako iturri gutxi daude azterketa honetarako frogak eskaintzen dituztenak. Ez dago emakume horien biografiarik, ezta haien prestakuntzari edo eguneroko jardueri buruzko azterketarik ere. Medikulu lanetan jarduten zuten emakumeei buruzko informazioa edo horiei buruzko medikuntza-ikuspegia eskuratzeko Sorano, Galeno eta beste autore batzuen literatura lanetara jo behar da eta hori bestelako informazio iturri batzuez osatu, hala material epigrafikoaz (hilobietan eta beste objektu batzuetan egindako inskripzioak) nola beste artefaktu batzuen hondarren kontserbazio-frogez (ontzi eta freskoenak nahiz indusketa arkeologikoenak) (Retief eta Cilliers 2005, 170-171).

Topatzen diren iturriak urriak izanagatik, ordea, iturri literario, epigrafiko eta arkeologikoak erabiliz egindako ikerketek Antzinateko medikuntzan emakumeen presentzia ere egon bazegoela nabarmendu dute. Hala ere, M^a Angeles Alonsok gutxiengo bat izango zirela irizten du. Erromatar munduan emakume hauek oroituak izan ziren terminoak jada aski ezagunak bazaizkigu ere (*medica*, *obstetrix*, *iatromaea*...), praktikan horietako bakoitzak jardun zuen medikuntzaren esparrua definitzea eta egiten zuen jarduera zehaztea ez da kontu erraza, iturriek ez baitute batere argi uzten, eta historialariak ere ez datoz guztiz bat eztabaida

horretan (Alonso 2011, 267-268). Jarraian aztertuko dugu sakonkiago iturri desberdinek zer kontatzen diguten emakume hauei buruz eta zer nolako informazio gabeziak islatzen dituzten.

Literarioak

Iturri literarioetan *obstetrix* bati egiten zaion lehen erreferentzia K.a III. mendekoa da eta jabetza pribatuaren aurka egindako kalteak arautzen zituen *lex Aquilian* aurkitzen dugu³. Ezezaguna den *obstetrix* honi egiten zaizkion bi aipuetan, hildakoa heriotzera eramaten zuen sendagai bat emateagatik ezarri behar zitzaion zigorra aztertzen da, baina hortik haratago ez da beste inolako funtziorik zehazten. Hala eta guztiz ere, aipu honek duen interes nagusia zera da, jada Errepublika garairako profesional hauek subjektu juridiko modura aitortzen zirela.

Gerora, K.a II-I. mendeetan, eta geroago Augustoren erreinaldian, *obstetrix* hauek autore klasikoen komedietako pertsonaia modura iristen zaizkigu, Plauto eta Terentzioren komedietan⁴, Horazioren obretan⁵, zein Seneka eta Kolumelaren aipamen puntual batzuetan⁶, eta guztietan funtzio bera betetzen irudikatzen dira, erditze momentuetan laguntza emanez hain zuzen ere. K.o II. mendetik aurrerako aipamenetara arte itxaron beharko dugu emakume hauek jarduera anitzagoetan irudikatuta ikusteko, besteak beste eritasunen inguruko kontsultak jasotzen zein aholkuak ematen medikuekin batera, eta engainagarriak izan zitezkeen haurdunaldiak frogatzen erakusten dituzte Apuleio⁷ eta Ulpianok⁸ hurrenez hurren. Plinio Zaharra izango da bere *Naturalis historia* lanean *obstetrix* batek burutzen zituen jardueren ikuspegi dibertsifikatuagoa emango duena eta are emagin horien lau izen zehatz ezagutarazten dizkiguna (*Salpe, Sotira, Elephantis* eta *Lais*)⁹. Gainera, Pliniok eskaintzen digun ikuspegiaren arabera, gehienetan hala emakumeei nola gizonei zegozkien eritasunak hartatzen ikusten ditugu, beraz, ezin dugu pentsatu emagin hauek emakumeei zegozkien arazoetan soilik esku hartzen zutenik (Alonso 2015, 1505-1507).

Goi Inperioaren garaian *medicae* emakumeak aipatzen dituzten pasarte literarioak askoz ere urriagoak dira eta hitzaren beraren lehen agerpenak ere berantiaragoak dira. Literaturan aurkitzen den lehen aipamena Martzialen epigrama batekoa da¹⁰ eta horrez gain

³ *Dig.* 9.2.9.pr; 9.2.9.1.

⁴ Plaut. *Mil. Glor.* 697. Terent. *Andr.* 299; 512-515.

⁵ Hor. *Epod.* 17.51.

⁶ Sen. *Epist.* 117.30. Colum. *Rust.* 7.3.16.

⁷ Apul. *Apol.* 69. 2-3.

⁸ *Dig.* 25.4.1.pr; 25.4.1.10.

⁹ Plin. *Nat.* 28.23.

¹⁰ Mart. *Epigr.* 11.71.

beste adibide bakar bat gehiago aurkitzen dugu Apuleioren *Metamorphosis* lanean¹¹. Bestalde, Pliniok zuzenean *medica* terminoa erabiltzen ez badu ere, *Olympia Thebana* izeneko emakume bat aipatzen du iturri modura beste mediku batzuen artean¹². Emakume honen kasuan, badirudi bere jarduera eremua ginekologiaren esparrura luzatzen dela baina aldi berean sendatze-erremedioen prestakuntzan ere ikusten dugu: bera izan zen hain zuzen hilekoaren jaitsieran laguntzen zuen errezeta sortu zuena, bai eta erditze uneko traumek sortutako antzutasuna zuzentzen zuen medikuntza bat garatu zuena. Horrez gain, antzararen koipearekin egindako malbak abortu-propietateak zituela ere defendatzen zuen eta ondoezak sendatzeko ematen zituen konponbideak emaginek ematen zituztenak baino konplexuagoak ziren (Alonso 2015, 1508).

Epigrafikoak

Atal hau garatzeko M^a Angeles Alonsok egindako ikerketa lan bat izan dut oinarri. Berak Erromatar Inperioko emakumeen lanbideak esplizituki dokumentatzen dituzten inskripzio latindarrak izan zituen aztergai eta gure lan-objektuari dagokionean 55 pieza aztertu zituen; horietatik 23k *medica* emakumeak aipatzen dituzte eta 32k *obstetrix* emakumeak. Ikerketa-esparrua Mendebalde erromatarrera mugatu zuen, hots, Erroma (inskripzio gehienek jatorria dena) eta penintsula italikoa (*Hispania*, *Gallia*, Afrika iparraldea, *Germania* eta *Dalmatia*). Piezen kronologiari dagokionez, berriz, lehen aipamenak Errepublika berantiarrekoak badira ere, inskripzio kopuru handiena K.o I. mendean hautematen da, ondorengo mendeko kopurua askoz ere baxuagoa izanik (Alonso 2011, 268-271). Ikerketak oso emaitza interesgarriak eman zituen eta Alonsok hainbat ondorio atera zituen bertatik.

Batetik, emakume hauen estatus juridikoari dagokionean, *medica* gehienak libertoak izan arren, egon ziren mediku izan ziren emakume askeak ere, beraz, orokorrean gizonezkoenaren antzeko joera bat hautematen da. *Obstetrices* artean, aitzitik, printzipioz ez da emakume askea izan zitekeenik aurkitzen, edo ziurtasun osoz ezin daiteke esan behinik behin. Medikuekiko ikusten den beste desberdintasun bat zera da, *obstetrix* horien artetik bi atzerritarrak zirela, peregrinoak, biak ere *Africa Proconsularisekoak*. Gainontzekoan, medikuen moduan gehienak libertoak ziren, eta esklaboek kopurua medikuetan ikusitakoa baino altuagoa zen. Izaera hau onomastikaren bitartez argi eta garbi ikus daiteke, baina emakume hauen izenak ematen digu bestelako informaziorik ere. Batzuen eta besteen izenei

¹¹ Apul. *Met.* 5. 10.

¹² Plin. *Nat.* 20.84; 28.77.

erreparatuz, *medica* emakumeen artean jatorri latindarreko eta greziarreko antroponimien kopuruan oreka bat ikusten den bezala, *obstetrix* gehienek greziar jatorriko *cognomena* zutela jabetzen gara eta hori, zeharka bada ere, erromatar medikuntzan greziar munduak izan zuen eraginaren adierazle da (Alonso 2011, 272-274).

Bestetik, aztertutako inskripzio gehienek oro har emakumearen izena, bere ofizioa eta asko jota eskaintzaileen izena beste daturik ematen ez badigute ere, zorionez pieza batzuek euren testuetan informazio gehixeago eskaintzen dute eta bertatik emakume horiek izan zezaketen aberastasun maila eta eros-ahalmena ere deduzitu ditzakegu. Badakigu bai *medica* artean eta baita *obstetrix* artean ere bazegoela libertoren bat zeukanik¹³ eta horrek emakume horrek aberastasun kopuru esanguratsu bat izango zuela pentsatzera garamatza. Beste inskripzioen batek emakumeak berak bere diruz ordaindu zuela inskripzioa aditzera ematen digu¹⁴ eta oro har testuak idatzita dauden euskarriak nahiko xumeak eta tamaina txikiko plakak, aldareak edota estelak badira ere, badago nabarmentzen denik. Beraz, monumentuak berak ere emakume horiek izan zezaketen bizi-mailaren berri eman diezaguke (Alonso 2011, 274-275).

Emakume hauen bizitzari buruzko eta orokorrean gizartearen inguruko bestelako informazioa ere ematen digute inskripzioek. Hileta-inskripzioak aztertuz, emakume horiek hil ziren adina ezagutu dezakegu eta aztertutako piezetan heriotza-adina 21-75 bitarte luzatzen bada ere, azpimarragarria da gazterik hil ziren horiek, gazte izanagatik, jada medikuntza-jardueretan murgilduak zeudela. Horrek ofizio horiek burutzen zituzten emakume asko oso gazterik hasten zirela lanean iradokitzen digu (Alonso 2011, 277).

Amaitzeko, ohikoa zen gisa honetako lanbideak familia inperialaren edota erromatar gizarteko maila altuko beste familia batzuen zerbitzura aurkitzea ere. Familia hauek askotan familiaren eta etxekeko liberto eta esklaboen zerbitzura zegoen mediku-talde bat izaten zuten eta batzuetan horien artean emakumeak egoten ziren. Gure lan-objektuari dagokionean, inskripzioetan ikus daitekeenez, emakume *obstetrix* gehiago izan ziren familia inperialean lan egin zutenak *medica* baino (Alonso 2011, 278-279).

Beraz, oro har, emakumeek medikuntza alorrean parte hartu izanaren testigantza epigrafiko gehienek aipatutako *medica* eta *obstetrix* jardueretan aritutako emakumez soilik hitz egiten digutela argi geratzen da. Hala ere, sailkatutako kategorien artean hirugarren bat

¹³ CIL 06, 09616 = Gummerus-01, 00113; CIL 08, 24679 = Gummerus-01, 00316 = AE 2015, +01736 = AntAfr-1973-133; CIL 06, 09721.

¹⁴ CIL 13, 02019 = CAG-69-02, p 667 = Gummerus-05, 00042: Metilia Donata medic[a] / de sua pecunia dedit / l(ocus) d(atu)s d(ecreto) d(ecurionum).

ere aipatu dugu, *iatromea* hain zuzen ere. Lanaren lehen lerroetan azken hauen izatea guztiz lausoa dela eta beste bi arloetan jarriko dudala arreta esan badut ere, ez litzaidake zilegi irudituko hauen existentziaren inongo aipamenik ez egitea datu-baseetan azaleko bilaketak egin ostean gutxienez hiru aipamen agertu direla jakinda¹⁵.

Arkeologikoak

Italian eta mendebaldeko probintzietan, *Naevia Clara*¹⁶ Erromako *medica philologaren* salbuespenarekin, iturri idatziek, hala testu literarioek nola inskripzioek, *medicae* batzuez baino ez digute hitz egiten; aitzitik, gizonezkoen kasuan normalean mediku terminoari beste bigarren osagai bat gehitzen zaio beren espezialitatea adierazteko. Zentzu horretan beraz, iturri idatziak soilik begiratuko bagenitu, medikuntzan jarduten zuten emakumeek ezagutza orokorrak edukiko zituztela edota inongo esparrutan espezializaturik ez zeudela pentsatuko genuke (Dasen 2016, 19).

Arkeologiak, ordea, betiere ematen diren datuak indusketetatik ateratako hipotesiak soilik direla kontuan hartuz, zenbait espezialitatetan adituak ziren emakumeen izaera iradokitzen du. Ongi dokumentatuta dagoen kasu bat Frantziako Vendée departamentuan dagoen Saint-Médard-des-Prés herriko hilobi batekoa dugu. Bertan aurkitutako hezurduraren tamaina txikiak adituak emakume gazte bati zegokiola pentsatzera eramán zituen (nahiz eta guztiz ziurra ez den). Hilobian gorpuarekin batera material ugari agertu zen: tamaina desberdineko kristalezko 80 ontzi baino gehiago, mortei ruak, arro kazko kristalean egindako koilarak, eta guztietan esanguratsuen estalkidun brontzezko kutxa bat, barruan ondo itxitako konpartimentuetan koloretako substantziak gordetzen zituena. Hau guztia ikusita, Muriel Pardon-Labonneliek mota honetako kutxak eta osagarriak okulista bati zegoziola iritzi zuen. Kontserbatutako zenbait produktuk egungo ikuspuntutik kosmetika funtzio bat izan dezaketen arren, Antzinateko garaietan kosmetika helburu terapeutikoetarako ere baliatzen zen. Hortaz, ez da harritzekoa emakume okulista baten instrumentuen artean agertu izana (Dasen 2016, 19-20).

Vindonissako esparru militarretik gertu dagoen *vicus* bateko hilerriko beste kasu batek, berriz, 18 eta 25 urte bitarteko erraustutako emakume baten eta hari lotutako 3 urteko haur baten aztarnak azaleratu zituen. Beirazko ontziaren alboan instrumentu kirurgikoen

¹⁵ AnalEpi p 274 = AnalEpi p 287 = AE 1983, 00081 = AE 1987, 00098 = AE 1991, 00128; CIL 06, 09477 (p 3895) = D 07806 = Gummerus-01, 00062 = AE 2013, +00143; CIL 06, 09478 = Gummerus-01, 00063.

¹⁶ CEACelio 00047 = AE 2001, 00263: C(aius) Naevius C(ai) l(ibertus) Phi[lippus] / medicus chirurg(us) / Naevia C(ai) l(iberta) Clara / medica philolog(a) / in fro(n)te ped(es) XI s(emis) / in agr(o) ped(es) XVI .

bilduma bat agertu zen: bi lantzeta, brontzezko suhatz bat, zunda-espátula baten arrastoak, brontzezko ontzi txiki bat eta baltsamoa. Hilobi honetako edukiak emakume mediku hau zainketa maila zabalaz arduratuko zela iradokiko liguke, baita kirurgia txikiak egiteaz ere, testuek horretaz ezer kontatzen ez badigute ere (Dasen 2016, 19-20). Wederathen, Alemanian, aurkitutako matxarda handi batek emakumea jarduera odontologikoekin ere erlazionatuko luke. Hala ere, hasieran esan bezala, ez dugu ahaztu behar guzti hauek hipotesiak besterik ez direla, eta gainera instrumentu hauetako bat bera ere ez dirudi zehazki emakumeen jardunari soilik dagokionik. Salbuespen bakarra Saint-Médard-des-Préseko *medica* horren begien zaintzarako kosmetika-produktuena litzateke, baldin eta hildakoaren emakume izaera hori guztiz baieztatuko balitz (Dasen 2016, 20).



1. Irudia: Vindonissako *vicus* batean aurkitutako instrumentu kirurgikoen bilduma (Iturria: Dasen 2016, 37).

4.1.3 Hezkuntza

Jada arestian aurreratu dudan moduan, emaginek, greziar-medikuntza mundu erromatarrean sartu aurretik, lanbide bereko emakumeek eskainitako oinarrizko ezagutza baino ez zuten jasotzen, ziurrenik ahozko transmisioaren bidez iritsitakoa eta ezagutza-praktikoetan oinarritua. Zenbaitetan familiako tradizioa ere egoten zen tartean eta amak txiki-txikitatik trebatzen zituen bere alabak jarduera horri eusteko. Beraz, hasierako garai hauetan praktika lanean bertan eskuratzen joaten zirela esan daiteke. Eredu hau, ordea, garai helenistikotik aurrera beste batek ordezkatu zuen. Greziar-medikuntzaren eragina pixkanaka mundu erromatarrean sartuz joan zen eta ordutik aurrera etorkizuneko emaginak trebatzeko obstetrizia eta ginekologiako gaien ikasketa prozesuak aurrera eramaten hasi ziren. Greziar eraginaren adierazle, Herofiloren *Maieutikon* obra esaterako, emaginaren hezkuntzan

eragin handia izan zuen testuliburua izan zen, Soranoren eskuliburuarekin eta Galenoren anatomia lanekin batera (Retief eta Cilliers 2005, 177).

Medica emakumeen hezkuntzaren kasurako, aldiz, Retief ez da oso zehatza. Berak dioenez, oro har, gizonezkoen kasuan bezala emakumeen hezkuntza ere, oinarri teoriko zorrotz batean baino gehiago praktiketan zentratzen zen, eta sarritan mediku izatearena familiako tradizioa zen. Gauzak horrela, medikuntzako trebetasunak aitarengandik alabarengana edo senarrarengandik emaztearengana transmitituko ziren, edo bestela beste mediku baten ikasle modura sartuta garatuko zituzten ezagutzak, eta ez horrenbeste medikuntzako edo sekzioko ikasketak eginez. Hala ere, kontuan izan behar da medikuntzako prestakuntza oso ezberdina izan zela garaiaren, tokiaren eta pertsonaren arabera (Retief eta Cilliers 2005, 179). Irvingek ere familiako tradizioaren kontuarekin bat egiten du baina hortik haratago deskribapen askoz ere zehatzagoa ematen digu gai honi dagokionez. Horretarako emakume bat aurkezten du: Restituta.

Badago inskripzio nahiko esanguratsu bat non emakume batek, Restitutak, bere irakasle eta patroia zen Klaudio Alkimori (Zesarren medikua zenari) eskaintza bat egiten baitio¹⁷. Balio handiko inskripzioa da informazio bereziki aberatsa ematen diguna. Alde batetik, orain arte emakume mediku baten eta bere gizonezko irakaslearen arteko harremanak dokumentatzen dituen bakarra da eta horrek egiten du berezi. Bestetik, lehenengo mendeko Erroman emakumeek medikuntzako lanbideetan izan zuten egitekoaren berri ere ematen digu. Honek gizonezkoen eta emakumezkoen artean lanbide honetan egon zirela elkarrekintzak erakutsiko luke. Ez hori bakarrik, askotan literatura klasikoko iturrietan dagoen ebidentzia falta medio emakumei lanbide honetan jardun izana ukatu izan bazaie ere, medikuntza-jardueran emakume profesionalak ere egon zirela berresten digu inskripzioak. Guri bereziki interesatzen zaiguna, ordea, zera da, inskripzioak esplizituki medikuntza lanbideko emakume baten heziketaren adibidea eskaintzen duela.

Emakume medikuen aipamenak dituzten gainontzeko inskripzio gehienetan, familia-harreman baten aipamena ikusi ohi da: emakumearen eta gizonaren artean, senar-emazteen artean, aita-alaben artean edota batzuetan ama-semeen artean. Hau da, Retiefen adierazpenetan ikusi bezala, Irvingek ere bat egiten du emakumezko gehienek etxean jasoko zutela beharrezko ezagutza euren senitartekoen eskutik. Horren eredu dugu *Anthiochisen* kasua esaterako¹⁸. Bere inskripzioak aita-alaba harremana erakusten du eta baliteke medikuntzarena familia-lanbide baten adierazgarri izatea, beraz, kasu honetan

¹⁷ IG XVI 1751.

¹⁸ Pleket, *Epigraphica Vol. II*, no.12.

pentsatzekoa da *Antiochisek* medikuntza-ezagutzak bere aitarengandik ikasiko zituela. Antzeko egoera baten berri ematen digu *Panthiaren* ereduak ere¹⁹, oraingoan, ordea, senar-emazte baten harremana ikusten dugu, biek, senarrak zein emazteak, medikuntza zuten lanbide eta batera lan egiten zuten. Baina *Panthia* ez da emakume sendagile profesional baten adibide garrantzitsu soila, baita sendatzea bere emazte-eginbeharren parte gisa betetzen zuenarena ere (Irving 2012, 49-53).

Restitutaren adibideak, ordea, aurreko bi kasuekiko zerbait desberdina erakusten digu. Izan ere, Restituta eta Alkimo (biak ala biak libertoak) ez zituen familia-harreman batek lotzen, Restitutak eta Klaudio Alkimok ikasle eta irakasle egitekoak zituzten, hurrenez hurren. Ikasketa eredu hau, pixkanaka, lehenetsia izan zen hezkuntza-eredu modura, orain arte ikusi dugunaren aurka, praktikotasunetik haratago ezagutza teorikoak ere baliatzen zirelako. Irvingek adierazten duenez, mundu greko-erromatarrean hezkuntza eredu hau gizonezkoenera ez ezik, zenbait emakumeren eskura ere bazegoen K.o I-II. mendeetan (Irving 2012, 50).

Emakume medikuen hezkuntzari dagokionez, beraz, askok familiako tradizioari eutsiz etxean oinarrizko ezagutza bat jasoko bazuten ere, Restitutaren adibidearen bidez zenbait emakumek, profesionalak ez ziren gizonen eskutik ez ezik ospe handiko gizon batzuen eskutik ere jaso zituztela ezagutzak ikus dezakegu.

4.1.4 Baloreak

Bere *Ginekologia* lanean, Efesoko Soranok emaginaren funtsezko ezaugarri eta trebetasunen deskribapen paregabea eskaintzen digu. Lehenik, emagina zer den definitzen du, emakumeen gaixotasunen kausa guztiak ikasten zituen eta medikuntza orokorrean ere trebea zen emakume bat hain zuzen, eta jarraian emagin idealaren ezaugarri eta gaitasun pertsonalak azaltzen ditu, mendetan zehar indarrean iraun zutenak. Emagin on batek izan behar zituen ezaugarriez honela zihoen:

“[...] A suitable person will be literate, with her wits about her, possessed of a good memory, loving work, respectable and generally not unduly handicapped as regards her senses, sound of limb, robust, and, according to some people, endowed with long slim fingers and short nails at her fingertips [...]” “ [...] we call a midwife faultless if she merely carries out her medical task; whereas we call her the best midwife if she goes further and in addition to her management

¹⁹ Pleket, *Epigraphica Vol. II*, no.20.

of cases is well versed in theory. And more particularly, we call a person the best midwife if she is trained in all branches of therapy (for some cases must be treated by diet, others by surgery, while still others must be cured by drugs) ; if she is moreover able to prescribe hygienic regulations for her patients, to observe the general and the individual features of the case, and from this to find out what is expedient, not from the causes or from the repeated observations of what usually occurs or something of the kind [...]”²⁰ (Temkin 1991, 5-6).

Medikuntza jardueretarako eskatzen ziren ezaugarrien inguruan, aldiz, iturri klasikoek ez dute ezaugarri eta trebetasunen deskribapen antzekorik egiten baina bi ogibideek esparru zabala hartzen zuten, pentsatzekoa da emakume mediku baten perfil ideala Soranok emaginei atxikitzen zienaren antzerako ildotik joango zela (Retief eta Cilliers 2005, 181).

4.1.5 Jardueretarako espazioak

Antzinate klasikoko medikuntza ezaugarritzen duen bereizgarrietako bat ospitale zibilen falta da, Antzinaroaren amaierara arte itxaron beharko da, Kristautasunaren hedakuntzarekin batera (eta honek bultzatuta hein batean) ospitale-erakundeak agertzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, Erroman medikuntzaren praktikara bideratutako lokalen absentzia erabatekoa zenik. Egon ziren Eskulapioren tenpluak edota *valetudinariae* bezalakoak, nekazaritza latifundio handietan eta kanpamentu militarretan aurkitzen ziren eta esklaboak eta legionarioak artatzera bideratuta zeuden guneak. *Valetudinaria* hauek hirietan ere existitu ziren baina oraindik oso goiz litzateke ospitale-zibil modura kalifikatzeko.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, medikuntzaren jarduna Erroman ez zegoela Estatuak erregulatuta, ekintza partikular bat zen. Hori dela eta, medikuntza-jardueretarako eremu garrantzitsuenak pribatuak izan ziren: gaixoen etxeak, medikuaren beraren etxea, edota *medicinae* edo *tabernae medicae* direlakoak. Azken hauek bide publikoetan kokatutako lokal txikiak izan ohi ziren eta bertan medikuek euren zerbitzuak eskaintzen zituzten. Gaur egungo ikuspuntutik konparaketa bat eginez, mediku kontsulta baten eta kontsulta farmakologiko baten konbinaketa moduko bat lirateke. Hala ere, *medica* eta *obstetrix* horien bereizketa bat eginez gero, bakoitzaren jarduerari erreparatuz, pentsatzekoa da medikuntzan orokorrean jarduten zuten medikuen kasuan hauek lokal propioak izango zituztela; aitzitik, *obstetrix* horien jardueraren beraren izaera medio, hots, erditzeetan laguntzea, ez dirudi hauek *tabernae*

²⁰ Sor. *Gyn.* 1. 3-4.

medica bat izateko beharra izango zutenik, eta litekeena da erditzeaz zeuden emakumeak euren etxean bertan artatzea (Barragán 2012, 85).



2. Irudia: *Obstetrix* batek erditze bat burutzen du, lankideak "aulki obstetrikoko" batean eserita dagoen pazienteari eusten dion bitartean (Iturria: Retief eta Cilliers, 2005, 182).

4.1.6 Estatusa

Erroman medikuntzan ziharduten emakumeek okupatzen zuten gizarte-maila ez zen espazio uniforme, praktikatzailea bizi izan zen garaiaren eta hark zuen ezagutza-mailaren arabera aldakorra baizik.

Obstetrei dagokienez, ikuspegi ekonomikotik espazio sozial txikia okupatzeaz gain, ez ziren miresmen handiaz ikusiak gizartean. Inskripzioetatik ondoriozta daitekeenez, obstetra gehienak esklaboak edo libertoak ziren eta familiaren baten zerbitzura zeuden; oso gutxitan aritzen ziren beren lanbidean emakume aske gisa. Haien egoera ekonomikoa nahiko prekariora zen, eta hori berretsi egiten da euren hilobi-monumentuen pobrezia ikusten denean. Gizartearen begirune baxu horrekin batera, zenbait testigantzek emakume hauek oso modu negatiboan aurkezten dituzte, besteak beste, gaitasun eza, iruzurra, alkoholismoa, abortatzeko substantzia debekatuak ematea, haurren trafikoa... leporatzen zitzairen. Ikuspegi hau garai arkaikokoa da, baina esan beharrekoa da denborak aurrera egin ahala, irudi negatibo hori leuntzen joan zela (Barragán 2012, 86).

Medica emakumeek, ostera, aurrekoek baino maila altuagoa zuten gizartearen barruan, eta ez oso desberdina gizonezko medikuek betetzen zutenaren aldean. Esklaboen proportzioa txikiagoa zen medikuen artean besteekin alderatuz, emakume libreak ere tarteka egon baziren ere, gehienak jatorri pobrekoak ziren, dedikazio horri esker aberastu zirenen testigantzak ere badaudelarik. Horixe izan zen Metilia Donata²¹ medikuaren kasua zeinaren hilobi-monumentu aberatsa Lyongo arkeologia museoan gordetzen baita. Bere epigrafeak

²¹ Ikus 14. oin oharra.

honela dio: “Metilia Donata medic[a] / de sua pecunia dedit / l(ocus) d(atus) d(ecreto) d(ecurionum)”. Argi dago Metiliak bere diruz ordaindu bazuen halako monumentua aberastu zelako izan zela (Barragán 2012, 86).

Gainera, pentsatzekoa da emaginen edo doktoreen jatorri sozioekonomikoak edozein izanda ere, haien zerbitzuak ez zirela merkeak izango: legezko xedapen askok adierazten dute emaginek, esaterako, beren gizonezko lankideenarekin konparatzeko moduko estatusa eta konpentsazioak zituztela. Ez hori bakarrik, badirudi esklaboek, lanbide horretan aritzen zirenek, nahikoa diru lor zezaketela askatasuna erosteko (Retief eta Cilliers 2005, 185) eta Metilia Donataren kasuan ikusi bezala beste zenbaitek euren diruz ordaindu zituztela hileta-inskripzioak. Beraz, badirudi jarduera hauek nolabaiteko igoera sozialerako abagunea eskaintzen zutela eta emakume hauen lana saritua ere izaten zela, zenbaitetan kantitate esanguratsuetan gainera.

4.2 Inudeak (*nutrices*)

Inudeena, emaginekin batera, emakumeen lanbide zaharrenetako bat dugu. Sarritan, estatus-maila jakin bateko emakumeek, erditzerakoan jasandako minengatik nekatuta, ez zituzten edoskitzeak ekar diezazkiekeen ondorioak sufritu nahi izaten. Hori zela eta, aberatsek, inudeen zerbitzuetara jotzen zuten, nahiz eta garaiko filosofo askok praktika hori guztiz gaitzesten zuten (hauek ziotenez amak berak edoskitu behar zituen bere haurrak horrek haurraren formakuntza fisiko eta psikologiko egokian laguntzen baitzuen). Pentsatzekoa den moduan familia txiroetako emakumeek ez zuten gisa horretako luxuak izateko ahalmenik.

Inudeak, gehienetan, umezain soil bat baino are gehiago ziren, baita haurraren mediku-laguntzaileak ere bere jaiotzaz geroztik. Bere esneaz elikatzeaz ez ezik, bularreko haur batek behar dituen zaintza guztiak emateaz ere arduratzen ziren.

Kasu honetan ere, lehen emaginekin ikusi dugun moduan, Soranok oso argi uzten ditu haur batek garapen egokia izan zezan inudeak izan behar zituen ezaugarri fisiko zein moralak:

“One should choose a wet nurse not younger than twenty nor older than forty years, who has already given birth twice or thrice, who is healthy, of good habitus, of large frame, and of a good color. Her breasts should be of medium size, lax, soft and unwrinkled, the nipples neither big nor too small and neither too compact nor too porous and discharging milk over abundantly. She should

be self-controlled, sympathetic and not ill-tempered, a Greek, and tidy [...]”²²
(Temkin 1991, 90-91).

Berak zehazten zuenez, edoskitze-prozesua haurren bizitzako hirugarren edo laugarren seihilekora arte luzatu behar zen, beraz, horrek argi uzten digu inudeen zerbitzuek ezinbestean lanaldi osokoak behar zutela izan. Gauzak horrela, inudeak etxean bertan egoten ziren familiako txikiaren hezkuntzaz arduratzen eta euren *educatrices* bihurtzen ziren. Bazeuden etxe bereko hainbat haurren zaintzaz arduratzen zirenak ere, horixe izan zen Tatiaren kasua, zeina Flavio Klemente eta Flavia Domitilaren 7 seme-alaben inude izan zen familiako kide bat gehiago bilakatuz²³.

Hispaniako kasuan, *nutrix* hauen portzentaila nahiko esanguratsua zela pentsatzen da. Gutxienez zazpi kasu nahiko ondo ezagutzen dira, guztiak Inperioaren garai aurreratu batekoak (K.o II-III. mendekoak). Garai honetakoak izatea, ordea, ez da kasualitatea, hain zuzen ere goi mailako emakumeen artean gorputzaren zaintzaren modak indarra hartu zuen garaiarekin bat egiten baitu, eta horrek emakume hauek beren haurren edoskitzea profesionalak zirenen eskuetan uzteko joera areagotu zuen. Profesional hauetako gehienek hiriguneetan zuten jatorria, beraz, bertatik ondorioztatu da amatasunak berarekin zekarren betebeharrak horren ardura beste batzuen eskuetan uztearena landa-eremukoa baino hiriguneetako ohitura gehiago izango zela (Alfaro 2010, 18-19).

Inudeak, normalean, ez ziren gizarte maila altuetako emakumeak izaten. Iturri gehienek maila baxuko emakume askeez edota erositako esklaboez nahiz jarduera zehatz horretarako alokatutakoez hitz egiten digute oro har. Emakume askeez hitz egitean, pentsatzekoa da hauek euren familia mantentzeko beharrak bultzatuta jardungo zutela lanbide honetan. Baina bazeuden libertoak zirenak ere, Germanikoren alabaren inudea esaterako hala zen.

Inudeen zerbitzuek euren ez zen haur batenganako debozio osoa eskatzen zuten eta normalean bete beharreko arau batzuk ezartzen zitzaizkien. Guzti honen berri xehetasun handiz eskaintzen diguten iturri nagusiak Alexandrian aurkitutako (eta K.a 15- K.o 305 bitartean datatzen diren) papiro batzuetan eginiko zenbait kontratu dira. Bertan irakur daitekeenez, inudearen esnea galdu ez zedin, sexu-harremanak izateari uko egin behar zioten inudeek, eta aldi berean, beste haur batzuk edoskitzea ere debekatua zuten. Horrez gain,

²² Sor. *Gyn* 2. 19.

²³ CIL 06, 08942 (p 3891) = D 01839: Tatia Baucyl[is nu]/trix septem lib[erorum pronepotum] / divi Vespasian[i filiorum Fl(avi) Clementis et] / Flaviae Domitil[lae uxoris eius divi] / Vespasiani neptis a[cccepto loco e]/ius beneficio hoc sep[ulcrum feci] / meis libertis libertabus po[sterisq(ue) eor(um)].

higiene baldintza nahiko zorrotzak jarraitu behar zituzten, eta kontratuak irauten zuen bitartean inudea haurrak osasuntsu mantentzera konprometitzen zen. Klausula batean zehazten zen, haurra hiltzen zen kasuan, inudeak jada jasota zeukan dirua itzuli edo kontratua amaitu arte beste haur bat elikatu behar zuela. Inude batek bere zerbitzuaren truk jasotzen zuen soldata ere definitzen zen kontratuetan eta batz besterik, normalean, 7-10 drakmako soldata jasotzen zuten K.o I. mendean, eta 16-20 drakmakoa K.o II. mendean. Egia esan, beste jarduera batzuen truk irabazten zenarekin alderatuz ez ziren kopuru altuak.

Aitzitik, Erromatar Inperioko gainontzeko lurraldeetan daukagun informazioa mugatuagoa da. Mediterraneoaren gainontzeko eremuetako egoera ezagutzeko *Digesto* bilduma juridikoan agertzen diren arau batzuek eskaintzen dituzten datuak besterik ez ditugu, zeinak ordainsariak legalki erreklamatu zitezkeela baieztatzeko aukera ematen baitigun (Alfaro 2010, 19). Edonola ere, Egiptoko kontratuek erakusten duten formalismoa ez badago ere, euren lanaren testuingurua nahiko antzerakoa izango zela pentsa liteke. Erromako familia handiek ziurrenik nahikoa esklabo izango zituzten horien artetik euren jaioberriez arduratuko zirenak hautatzeko; gainontzeko familiek, berriz, jarduera horretarako emakume bat kontratatu edota esklabo baten zerbitzuak alokatu beharko zituzten (Dimopoulou 1999, 281-285). Argi dago haur baten formakuntzaren lehen urteetan inudeen zerbitzuak garrantzia berezia zuela, are gehiago haur-hilkortasun tasa bereziki altua zen garaietan.

4.3 Emakumeak eta ezagutza farmakologikoa

Puntu honetara iritsita, jada esan beharrik ez dago oso antzinako garaietatik emakumeek ezagutza farmakologikoak garatu zituztela. Erromatar tradizioak, beste funtzio domestiko batzuen artean, matronei familiako ortuen ardura ematen zien. Horrek landareen sendatze-propietateen gaineko ezagutza garatzeko aukera ematen zien zeina ondoren belaunaldiz belaunaldi igarotzen baitzen. Ezagutza horiek erabilera anitz izaten zituzten ginekologiako esparruaren barruan, bereziki antisorgailu eta abortu-eragile modura. Tradizionalki haurdunaldiaren prozesu osoaren eta erditzearen beraren ardura, bai eta horren gaineko ezagutza ere emakumeei esleitutako jarduera izan den moduan, ez da harritzekoa, bada, sendabelar hauekin errezetak elaboratzearena ere emakumeen esperimentazio-esparru izatea. Emakume hauek *pharmaka*, *philtira* edo *medicamenta* izenez ezagutzen ziren (Mañas 2019, 148).

Literaturak, ordea, emakume hauen ezagutza baliotsuak bildu eta erremedio hauen onurak adierazten baditu ere, autore klasiko askok emakumeen eskuetan halako ezaguera

baliotsua izatearen aurkako jarrera azaleratu zuten, zenbaitek emakumeen botere kaltegarriaren beste mehatxu baten modura ikusten baitzuten. Plautok esaterako hala idatzi zuen emakume hauez:

[...] *os habet, linguam, perfidiam, malitiam atque audaciam,*
confidentiam, confirmatam, fraudulentiam.
qui arguat se, eum contra vincat iureiurando suo:
domi habet animum falsiloquom, falsificum, falsiurium,
domi dolos, domi delenifica facta, domi fallacias.
nam mulier holitori numquam supplicat, si quast mala:
domi habet hortum et condimenta ad omnis mores maleficos.²⁴

Historiako eta literaturako orrialde askok emakume hauek droga eta pozoien prestaketekin lotzen dituzte emakume jakintsu horien aurpegi ez horren atsegin bat eskainiz. Borondatearen eta gizonezkoen boterearen ezeztapena ekartzen duten zenbait praktika esleitzen zaizkie, hala nola, gizonak eromenera eramatea edota maitasun-edabeen bitartez gizonak euren eskuetan erortzea. Horrek azalduko liguke emakume hauek askotan magia-jarduerekin harremanetan egon izana; izan ere, halako kasuetan ikusten da medikuntza eta aztikeria bereizten zituen lerroa oso lausoa zela Antzinateko garai hauetan. Egun, pozoien eta emakumeen praktika hauen arteko lotura hau greziar mitologiaren bidez ezagutzen dugu bertatik iritsi baitzaizkigu landareen naturaz gaindiko botereak eta mota guztietako sorginkeria eta araoak kontrolatzen zituzten emakumeen izenak: Hekate, Zirze, Medea, Kalipso... (Mañas 2019, 149).

Literaturak emakume hauen irudia zikindu eta hauekiko gizartearen mesfidantza elikatu zuela esan daiteke. Hala ere, ukaezina da egon zirela kasuak (eta ez gutxi) *pharmaka* hauek gizonezkoekin akabatzeko baliatu zirenak, eta horren adierazle da Erromako historian pozoitze-jardueren ondoriozko epaiketa prozesuak ugariak izatea. Adulterioarekin batera pozoiketak egin izana da emakume erromatarrei gehien egiten zitzaizkien salaketak, eta ohikoa zen epaiketa prozesu askotan bi oker horiek elkarri lotuta agertzea (Mañas 2019, 149). Tito Livio pasarte batean kontatu zuenez, K.a 331. urtean arazoak larritasun handia hartu zuen, Erromako hirian gizon asko eta asko bat-batean hil baitziren. Esklabo bat izan zen Kinto Flavio Maximo edilari ezbehar horien arrazoiaren berri eman ziona eta hiriko matronek pozoituak izan zirela aitortu zuena. Horren aurrean, euren erruduntasuna frogatzeko bi

²⁴ Plaut. *Mil. Glor.* 2. 188-194: “Pues una mujer, por poco maliciosa que sea, no va nunca al hortelano: lleva en sí un huerto y especias para todo condimento malicioso.” (Ciruelo 1991, 99).

matrona, Kornelia eta Sergia, edabe horiek edatera behartu zituzten eta biak hil ziren. Modu berean, 170 emakume izan ziren pozoiketengatik zigortuak²⁵.

Tito Liviok deskribatzen duen pasarte hori, ordea, ez zen salbuespena izan, pozoiketen ondoriozko heriotzen kasu gehiago eman baitziren Erromako historian zehar²⁶. Ziurrenik sona handiena lortu dutenak familia inperialaren barruan gauzatutakoak dira eta horien artean Lokusta esklaboa da toxikologia ezagutzak zituzten emakumeen artean ezagunena egin dena. Galiar jatorriko emakume honek lehenengo Neronen ama izan zen Agripinaren agindupean Klaudio enperadorea pozoitu zuen, eta gero Neronen beraren zerbitzupuan Britanikorekin akabatu zuen. Esklabo hau, beraz, Estatuaren esanetara zegoen tresna gisa ikus daiteke. Baina ez zen kasu bakarra izan, Tazitok deskribatzen duenez, Liviak Augustok bere ondorengo izateko itxaropena jarrita zuen familiako hainbat kide pozoitu baitzituen ondorengotza bere seme Tiberioren izango zela bermatu zuen arte. Ez hori bakarrik, autore berdinak Liviak, behin Tiberio ondorengo bezala izendatua izan ondoren, Augusto bera ere pozoitu izan zukeela iradokitzen du. Historiografiak emakume pozoitzaileen irudia eskaini badu ere, pozoien erabilera emakumeen esku soilik egotetik urrun zegoen, are gehiago, iturri idatziek hauen erabilera ondorengotza etsai edota etsai politiko izan zitekeen oro paretik kentzeko metodoa izan zela erakusten dute (Mañas 2019, 150-151).

5. SENDATZEKO APARTEKO PRAKTIKAK: MAGIA

Gauza jakina da ondorengorik eza arazo indibidual baino arazo kolektibotzat hartzen zela Erroman, izan ere, ugaltzeko beharra generoak zehaztutako emakumeen gizarte-betebeharra eta eurengandik itxaroten zen kontua zen. Beraz, ez da harritzekoa ondorengotza bermatzea betebehar nagusizat hartzen zen gizarte batean helburu hori kosta ala kosta lortzeko eskura egon zitekeen baliabide oro erabiltzea. Argi dago emakumeek eurek ere medikuntza popularreko erremedioak erabiliko zituztela, ukenduak, edariak edo baginako supositorioak... animalia-osagaietatik, landare-osagaietatik edo osagai mineraletatik eginak eta ugalkortasuna erraztu zein haurdunaldian zehar izan zitezkeen galerak eragozten zituztenak. Baina emakume batzuek umetokiko disfuntzioei eta antzutasun arazoei aurre egiteko nahiago izan zuten beste bide batzuei heldu eta horretarako jainko-jainkosa ezberdinen laguntzara jotzen zuten (Mañas 2019, 143-144).

²⁵ Liv. 8.18.

²⁶ K.a 180. urtean esaterako berriz ere antzeko episodio bat eman zen, gizon asko hilik agertu ondoren bi mila emakume inguru izan baitziren pozoitze horiez akusatuak. Urte batzuk geroago, K.a 154-153an, Postumio Albino eta Klaudio Aselo kontsulak modu berean hilda agertu ziren eta euren emazteak epaiketa gauzatu baino lehen familiartekoen eskutik urkatuta hil ziren (Mañas 2019, 150).

Amatasunaren auzian Juno jainkosa zen guztietan garrantzitsuena inongo zalantzarik gabe, baina aipatzekoak dira halaber, Diana edota *Mater Matuta* bera ere. Ez da harritzekoa bada, erlijioak horrenbesteko garrantzia zuen gizarte batean erromatar egutegi ofizialean bertan ere gai honi lotutako jaiegun ezberdinak aurkitzea naturaren zein emakumeen ugalkortasuna indartzeko helburuaz. Horien artean aurkitzen ditugu besteak beste *Lupercalia*, *Nonae Caprotinae* edota *Veneralia* jaiak.

Erregistro materialak ere gauza bera berresten digu arlo magiko-erlijiosoko praktika hauen testigantza diren objektu ugari iraun baitute gaurdaino: organo sexual maskulino zein femeninoak irudikatzen dituzten iduneko ugari, terrakotazko *exvotoak* (*donaria*), emakumeen bularren eta botozko umetokien irudikapenak, zapien bildutako haurren iruditxoak, emakume haurdunak, kutun magikoak... zenbait santutegitan agertu diren *exvotoen* erabilera masiboak emakumeek ugalkortasunaz zuten ardura bereziki handia zela eta aldi berean objektu hauek zituzten botere magikoenganako sinesmenak mundu erromatarrean oso hedatuak zeudela agerian uzten digu (Mañas 2019, 144-147).

Baina erlijioaz gain, bazegoen beste jarduera bat Antzinateko medikuntzarekin harreman estua duena eta greko-erromatar munduan garrantzia nahikoa izan zuena; magia hain zuzen ere. Egia esan, magiaren mundua jada izatez oso zabala eta misterioitsua bada, zer esanik ez ia bi mila urtez atzera egindako gizarteetan murgiltzen bagara, gaiaren gaineko ezagutza are lausoagoa bihurtzen baitzaigu. Antzinateko magiaz hitz egiterakoan ezin ditugu inolaz ere aipatu gabe utzi Hekate, Diana, Zirze eta Medea bezalako izen handiak. Ez da kasualitatea baina, magiarekin lotutako pertsonaia mitologiko hauek emakumeak izatea, izan ere, magiarena emakumeei lotzen zitzaien jarduera baitzen Antzinateko gizarte hauetan.

Magiaren eta medikuntzaren arteko harreman hau ulertzeko kontuan izan behar dugu, jada aipatu bezala, emakumeek landareen propietateen gaineko ezagutza handiak zeuzkatela eta horiek baliatzen zituztela zenbait helburutarako. Hitz egiten gabiltzan praktika jarduera hau etxeko esparruan egiten zen. Emakume horiek zenbaitetan nahiko osagai arraroak erabiltzen zituzten, eta badirudi elikadura eta sukaldaritzan ere eskarmentu handia zutela, oraingoan helburu mediko-magikoetara bideratuta (Dasen 2016, 4). Bestalde, berezitasun modura, aipatzekoa da sarritan erremedio tradizional horien osagarri gisa formula magikoak agertzen direla, erromatar munduko osasun-praktiketan oso ohikoa zen konbinaketa hain zuzen. Zenbaitetan ulertezinak diren hitz hauek helburu terapeutiko gisa funtzionatzen zuten eta hitz horien benetako boterean simesmen itsua zuten (López 2009, 113). Beraz, Antzinateko gizarte hauetan osasungintza eta magia bereizten dituen lerroa nahiko lausoak zela esan daiteke.

Baina prestatzen zituzten ukendu zein edabeak ez ziren beti helburu zintzoetarako erabiltzen. Zentzu horretan beraz, magiaren bi aspektu bereizi beharko genituzte: batetik, magia “zuria” edo positiboa, helburu onetarako baliatzen zena, eritasunen sendabide modura esaterako; eta bestetik, magia “beltza” edo negatiboa, *goeteia* hitzez ezagutzen zena eta besteen kaltea besterik bilatzen ez zuena. Bigarren alderdi honi zor zaio beraz, hainbat emakumez eskaini den irudi okerra.

Emakumeenganako ikuspegi hau neurri batean mitologia klasikoak elikatu du zeina era berean literaturari eta bereziki autore klasikoen tragediei esker ezagutzen baitugu, emakumeak magia jardueran pertsonifikatu baititu. *Goeteia* praktika pribatura eta emakumeetara baztertuta zegoen bereziki, horrela, arlo pribatuarekin duen lotura, batez ere, maitasun-edabeak aplikatzera mugatzen da, horien bidez, emakumeek sexualitate maskulinoa eta ugalketa-zikloa kontrolatzeko. Alde horretatik, praktika hauek hartu zuten dimentsioaren adierazle da magia mota hori praktikatzen duten pertsonen aurkako zigorrak larriagotu izana Augustoren garaian ia gizarte mailako arazo bihurtzeraino. Hori neurri batean emakumeen mendetasuna indartzeko beste saiakera baten modura uler daiteke, emakumeei beren gorputzaren edo gizonen gorputzaren gainean izan dezaketen kontrol guztia ukatuz. Beraz, mitologiaren bitartez, Medea eta Zirze bezalako aztiak moraltasun ororen aurkako emakumeen arketipo gisa erakusten dira gizartearen aurrean, erromatar gizon batentzat pentsaezinak ziren jarrerekin, arrazoizko gizonaren aurrean kontrolik gabeko izaera bat duen emakumeari erreferentzia eginez. Egoera horrek gizonak emakumeen gainean zuten kontrola justifikatzeko eta botere hori legitimatzeko balio zuen (López 2009, 115). Beraz, argi dago erromatarrentzat mitologia moraltasun printzipioen eredu izateaz gain, helburu didaktikoetarako jarraibide ere bazela.

6. ONDORIOAK

Ikusi dugunaren arabera, badirudi azken mendeetako emakumeek lan munduan murgiltzeko egin behar izan duten borroka gogorarekin eta medikuntza eskoletan sartzeko izan zituzten zailtasunekin kontrajarriz, Antzinateko erromatar zibilizazioko emakumeek medikuntzan jarduteko askatasun handiagoa izan zutela. Horrek, ordea, inolaz ere ez gaitu emakume hauek bidea erraza izan zutela pentsatzera eraman behar. Garaiko pentsamoldetik abiatuta eta datuek hala berresten digutenez, jarduera hauetan aritzen ziren emakumeen kopurua ez zen oso altua, eta medikuen kasuan beti izan zen lanbide berean aritzen ziren gizonetzkoena baino baxuagoa. Ziurrenik horren atzean dagoen arrazoi nagusia etxe

eginkizunen ardura osoa euren eskuetan egotean zetzan. Edonola ere, autore ezberdinen hitzetan, emakume hauek gizonezkoen aukera berberetz gozatuko zuten eta beren komunitateen aldetik ere onartuak izango ziren. Ikusi bezala, emakume gehienak hala emaginak nola inudeak ziren, bi esparru hauek bereziki emakumeei gordetakoak baitziren, hala ere, zenbaitek mediku gisa ere jardun zuten, eta horrek ohore bereziak eskuratzeko eta maila ekonomiko duin bat erdiesteko parada eman zien. Beraz, lanaren hasieran azaldutakora itzuliz, argi dago Inperio garaiko lehen mendean emakumeek aukera politiko, kultural, sozial eta ekonomiko gehiagoz gozatu zutela. Ondorengo garaietan, ordea, (Antoninoekin eta aurrerago kristautasuna nagusi zen mendeetan), atzerapauso bat eman zen eta emakumeen presentzia publikoa murriztu zen ia aurreko egoerara itzuliz (Mañas 1996, 207). Emakumeen birdefinitze sozial bat eman zela esan daiteke, lehen publikoki egiten zituzten jarduera batzuk orain esparru pribatuan jorratzera igaro baitziren.

Horrez gain, lan honetan zehar sarritan uste izan diren zenbait ideia oker eraitsi ahal izan ditugu: batetik, emagin eta medikuen kasuan ikusi bezala K.o I. mendeko emakume hauek heziketa bat jaso zutela erakutsi dugu. Egia da, ahoz aho aurreko garaietatik iritsitako jakintzei ere eutsi zitzaizela eta horiek ere aplikatuko zituztela, baina greziar medikuntza zientifikoaren eraginez, geroz eta gehiago bultzatu zen ogibidean jarduten zuten profesionalek medikuntza eta obstetrizia jakintzak izatea. Ezagutza teoriko zein praktikoa oinarritutako hezkuntza horretatik emakumeak ez dirudi salbuetsita egon zirenik, eskola horietan parte hartu baitzuten. Ez hori bakarrik, iturriek emakumeak ezagutza teoriko eta praktikoko horietan trebeak zirela ere aipatzen dute euren balioa aitortuz.

Bestetik, askotan aintzat hartu den segregazioaren ideia ere alboratu beharrean gaude. Hainbat eredu aztertuz ikusi dugunez, ebidentzia epigrafikoek lan arloan gizon eta emakumeen arteko elkarrekintza egon zela adierazten dute, baita bien jarduna elkarren osagarri izan zitekeela ere: senar-emazteak ogibide berean aritu zitezkeen, emazteek senarrei euren medikuntza lanetan lagun ziezaieketen, ofizioak aitarengandik alabarengana igaro zitezkeen (eta ez aitarengandik semearengana soilik). Hortaz, argi geratzen da sexuen arteko harremana egon bazegoela eta lankidetzaz hori elkarrekiko errespetuan oinarrituko zela.

Lanari amaiera emateko, lan hau burutzerakoan aurkitu dudak kontraesan handietako bat mahaigaineratu nahiko nuke. Izan ere, autore modernoek behin eta berriz aipatzen dute medikuntza lanetan jarduten zuten emakumeak komunitatearen barruan ondo hartuak zirela eta euren lankideen begietan ere errespetuz tratatzen zituztela. Baina ondoren, emaginen kasuan eta ezagutza farmakologikoak zituzten emakumeak gizarterako arriskutsu ikusten zituzten, zenbaitetan medikuen ezagutza eta funtzio nahiko antzerakoak zituzten arren.

Gainera, hasieran aipatu bezala, batzuen eta besteen jarduera eremua definitzea eta mugak jartzea nahiko zaila dela esan dugu, hortaz, nahiko zaila egiten da batzuekiko eta besteekiko egon zitekeen ikuspuntu polarizatu hori ulertzea. Beraz, zerbaitek eskuetatik ihes egiten digula dirudi. Kontuak kontu, argi dagoena da sendatze-tradizioetan lan egiten duten emakumeen praktika luze baten hasiera markatzen duela honek, mendeetan zehar eutsi eta gaur egunera arte iritsi dena.

7. BIBLIOGRAFIA

7.1 ITURRI KLASIKOAK

Ciruelo, J. I. (itzul.) (1991). Plauto. *Miles Gloriosus. El militar fanfarrón*. Bosch, Bartzelona.

D'Ors, A., Fernández-Tejero, F., Fuenteseca, P., García-Garrido, M. eta Burillo, J. (itzul.) (1968). *Digesto de Justiniano. Tomo I. Constituciones, preliminares y libros 1-19*. Editorial Aranzadi, Iruñea.

- (1972). *Tomo II. Libros 20-36*. Editorial Aranzadi, Iruñea.

Forster, E. S. eta Heffner, E. (itzul.) (1968). Columella. *De re rustica. V-IX*. Loeb Classical Library 407, Londres.

Guillén, J. (itzul.) (1986). Marco Valerio Marcial. *Epigramas*. Institución Fernando el Católico, Zaragoza.

Gummere, R. M. (itzul.) (1925). Seneca. *Epistles 93-124*. Loeb Classical Library 77, Londres.

Igerabide, J. K. eta Lertxundi, A. (itzul.) (1996). Luzio Apuleio. *Metamorfosiak edo Urrezko astoa*. Ibaizabal, Euba.

Jones, W. H. S. (itzul.) (2005). Pliny. *Natural History. Books 20-23*. Loeb Classical Library 392, Londres.

- (2006). *Natural History. Books 28-32*. Loeb Classical Library 418, Londres.

Moralejo, J. L. (itzul.) (1979). Cornelio Tácito. *Anales. Libros I-VI*. Biblioteca Clásica Gredos 19, Madril.

- (2007). Horacio. *Odas. Canto Secular. Epodos*. Biblioteca Clásica Gredos 360, Madril.

Pleket, H. W. (itzul.) (1969). *Epigraphica Vol. II. Texts on the social history of the greek world*. E. J. Brill, Leiden.

Posani, M. R. (itzul.) (1990). Terenzio. *Andria*. Pàtron, Bolonia.

Segura, S. (itzul.) (1980). Apuleyo. *Apología. Flórida*. Biblioteca Clásica Gredos 32, Madril.

Temkin, O. (itzul.) (1991). Sorano. *Gynecology*. Johns Hopkins University Press, Londres.

Villar, J. A. (itzul.) (1990). Tito Livio. *Historia de Roma desde su fundación. Libros VIII-X*. Biblioteca Clásica Gredos 148, Madril.

7.2 BIBLIOGRAFIA MODERNOA

Acedo, M. J. (2020). “El rol femenino en la economía y el evergetismo en época altoimperial”. *Journal of Feminist, Gender and Women Studies*, (8), 21-28.

Alfaro, C. (2010). “La mujer y el trabajo en la Hispania prerromana y romana. Actividades domésticas y profesionales”. *Mélanges de la Casa de Velázquez. Nouvelle série*, (40-2), 15-38.

Alonso, M. A. (2011). “Medicae y obstetrices en la epigrafía latina del Imperio romano. Apuntes en torno a un análisis comparativo”. *Classica et Cristiana*, 6, 267-296.

- (2015). “Mujeres y praxis médica en el África romana: representación epigráfica y definición de competencias”. P. Ruggeri (zuz.), *L’Africa romana: momenti di continuità e rottura: bilancio di trent’anni di convegni L’Africa romana*. Carocci editore, Roma, 1501-1509.

Barragán, J. P., (2009). “El espacio de la mujer en la medicina romana”. F. Oliveira, C. Teixeira eta P. Barata Dias (koord.), *Espaços e Paisagens: Antiguidade Clássica e Heranças Contemporâneas: Vol. I Línguas e Literaturas: Grécia e Roma*. Associação Portuguesa de Estudos Clássicos, Coimbra, 83-88.

Conesa, P. D. (2016). “Estudios sobre mujeres de la Antigua Roma. Estado de la cuestión, problemas y progreso científico en un campo histórico consolidado”. *Minus*, (24), 205-226.

Dasen, V. (2016). “L’ars medica au féminin”. *Eugesta: Revue sur le Genre dans l’Antiquité*, 6, 1-40.

- Dimopoulou, A. (1999). "Medica, Obstetrix, Nutrix: Les femmes dans les métiers médicaux et paramédicaux dans l'antiquité grecque et romaine". *Saitabi*, 49, 273-289.
- Fernández, P. (2011). "Obreras y empresarias en el periodo romano Alto Imperial". *Espacio Tiempo y Forma. Serie II, Historia Antigua*, (24), 381-403.
- Irving, J. (2012). "Restituta: The Training Of The Female Physician". *Melbourne Historical Journal*, 40(2), 45-56.
- López, M. J. (2009). "Diana y otras criaturas de la noche en las Metamorfosis de Ovidio". *Arys: Antigüedad, Religiones y Sociedades*, 8, 101-128.
- Mañas, M. (1996). "Mujer y sociedad en la Roma Imperial del siglo I". *Norba: Revista de historia*, (16), 191-207.
- Mañas, I. (2019). *Las mujeres y las relaciones de género en la antigua Roma*. Síntesis, Madril.
- Mouline, S. C. (2019). *Recherches sur la femme romaine à la fin de la République et sous Auguste: entre mythes, discours et realia*. (Master amaierako lan argitaratu gabea). Université de Liège, Faculté de Philosophie et Lettres, Belgika.
- Retief, F. P., Cilliers, L. (2005). "The healing hand: The role of women in ancient medicine: the Graeco-Roman world". *Acta Theologica* (7), 165-188.